

**68AREN OSTEAN.  
DESPUÉS DEL 68.  
AFTER'68.  
1968-2018**

Museoko denbora desokupatzeko  
eta okupatzeko obra batzuk



*MUSEOKO DENBORA* desokupatzeko eta okupatzeko obra batzuk hainbat obraren inguruko topaketa saila da. Horietako batzuk *68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018* erakusketan daude, beste batzuk marko konzeptual baten parte dira. Horietako bakoitzean, obra batek artistei eta artearen munduko espezialistei deitzen die eta bildu egiten ditu.

*Museoko denbora...*-ko topaketak batzen dituen ideia da nola pentsatu museoak, barruan hartzen dituen objektuen bidez: Bilboko Arte Ederren Museoa, bere izaera eta bere historia espezifikoeekin, eta museo generikoa, iraganeko objektuak etorkizunerako zainduz, orainaldiaren kontaketa bat egiten duen instituzio gisa.

*Museoko denbora...*-ren premisa da artelan orok duela interpretatzeko gaitasuna. Hau da, artelan batek begiratzen zaion une zehatzari erantzuten diola; artelak sortzen dituzten etenak eta zeturak ekoizteko ahalmena dauka.

*Museoko denbora...* Bulegoa z/b arte- eta jakintza-arloko bulegoaren eta Bilboko Arte Ederren Museoaren arteko kolaborazio-proiektua da, *68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018* erakusketaren lagungarri.

**Malévich-i omenaldia** (Jorge Oteiza, 1957) eta  
**Ekintza «Museoa»** (EAE. Euskal Artisten Elkarte, 1983-2001)

**María Luisa Fernández eta Beatriz Herráez**

OBREI BURUZ

*Malévich-i omenaldia* Jorge Oteizak 1957an São Pauloko IV. Biurtekoan bere *Xede experimental*a saileko parte gisa aurkeztu zituen hogeita zortzi lanetako bat da; sail horren ardatza desokupazio espazialaren ideia zen. Bi urte geroago, 1959an, artistak utzi egin zuen eskulturaren praktika. Txomin Badiolaren *Oteiza. Eskultura katalogo arrazoitua* liburuko (2015) hitzekin esanda, obra honek erakusten du “elementurik immaterialena, espazioa, aldi berean dela kausa eta ondorio; eskulturak espazioa sortzen du eta espazioak eskultura sortzen du”. 1982an, Bilboko Arte Ederren Museoak erosi zuen pieza, eta urtebete geroago EAE (Euskal Artisten Elkarte/Asociación de Artistas Vascos) artista-kolektiboaren ekintza baten parte izan zen.

*Ekintza «Museoa»* du izenburu Badiolak ekintza hori editatuz egin zuen bideoak; *Malévich-i omenaldia* museoko gela batean “bahitu” eta ondoren Bilboko udaletxera eramatea izan zen ekintza. Kolektiboak ekintza definitzeko “bahiketa” hitza hautatu izana Euskal Herriko kaleetan garai hartan bizi zen indarkeria sozial eta politikoari egindako erreferentzia argi gisa aurkezten baldin bazen, ekintzaren tonu aldi berean poetiko eta burlatiak Jean-Luc Godarden *Bande à part* filmeko (1964) protagonistek Louvreko aretoetan zehar egiten duten bederatzi minutuko lasterraldia ekar dezake gogora.

*Malévich-i omenaldia* obra ABC. *Bilboko Museoaren alfabetoa* erakusketan dago ikusgai, eta *Ekintza «Museoa»*, berriz, *68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018* erakusketan, biak ere Bilboko Arte Ederren Museoan.

**María Luisa Fernández** artista da.

**Beatriz Herráez** arte historialaria eta erakusketen komisarioa da; Artium, Vitoria-Gasteizko Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa, zuzentzen du.

## **Pilgrimages for a New Economy (Erromesaldiak ekonomia berri baterako)** (Erlea Maneros Zabala, 2007-2012)

**Erlea Maneros Zabala eta José Díaz Cuyás**

OBARRI BURUZ

*Imagined Communities* lanean (1983), Benedict Andersonek adierazi zuen museoa zela inperio kolonialek eta estatu kolonial berriek XIX. eta XX. mendeetan zehar beren mendeko eremuak irudikatzeke erabili zituzten hiru instituzioetako bat –beste biak errolda eta mapa ziren–. Horrela, erroldak biztanleriak irudikatzeke aukera ematen bazuen, eta mapak, lurraldea, museoa biztanleria horren eta lurralde horren gaineko menderakuntza zilegitzeko tresna bikain gisa agertzen zen, historia komun baten kontaketaren eraikuntzaren bidez.

Museoaren erabilera hori aldatu egin da munduaren gaur egungo egoerarekin. Ordena neoliberallean, finantza-merkatuek hartu dute nazio-estatuaren lekua. Erroldak, mapak eta museoak tresna Baliagarriak izaten jarraitzen dute, baina haien erabilera aldatu egin dira. Logika enpresarialak dena bereganatzen du, subjektibitate-ekoizpena ere barne dela, eta museoak orain, beste ezer baino gehiago, turismo kultural globalaren industriako parte diren enpresak dira.

*Pilgrimages for a New Economy*-k ondareak, ideiek eta pertsonen logika normatibo global bakarrari jarraituz zirkulatzen duten errealtate berri horri egiten dio erreferentzia. Erlea Maneros Zabalaren argazki sailak azken berrogeita hamar urteetan eraikitako enpresa-museo horietako batzuen ikuspegiak erakusten ditu. Soslai ikusgarriko eraikin moderno horien arrakasta ikono bihurtzeko eta, horri esker, sailaren izenburuak dioen moduan, ekonomia berriko zirkulazioko eta kontsumoko ibilbideetan sartzea lortzeko duten ahalmenean oinarritzen da.

*Pilgrimages for a New Economy*-ko argazkiak Internetetik jaitzita irudietatik abiatuta eginda daude, artistak zuzenean ordenagailuaren pantailari argazkia eginda. Pantaila ez da hemen interfaze ikusezina, eta ordenagailu eramangarriari atxiki ohi zaien zikin-keriak (hautsa, hatz-markak, listua...) argi uzten du hori. Geruza horrek arrarotze-efektu bat sortzen du argazkietan, eta bat-batean eraikin hiper-modernoek hondakin futurista eta anakronikoak dirudite, irudikatutako komunitateen hondarrak denboraren toles batean harrapatuak.

**Erlea Maneros Zabala** artista da.

**José Díaz Cuyás** Estetikako eta Artearen Teoriako irakaslea da La Lagunako Unibertsitatean (Tenerife).

## Espazio publiko eta pribatuetan txiza egitea

(Itziar Okariz, 2000-2004)

Itziar Okariz eta Chus Martínez

OBARRI BURUZ

“Aurretik hautatu ditudan lokalizazio espezifikoetan egiten diren ekintzen saila. Ez dago abagunerako deitutako publikorik, nahiz eta gerta daitekeen kasualitatez pasatzen den jendeak ekintza ikustea. Eskuarki, zirkulazio handirik ez dagoenean egiten saiatzen naiz, ekintza isilpekoa eta legez kanpokoa baita. Ikuspegi horretatik begiratuta, interesatzen zait adieraztea zer dagoen legeak baimenduta eta zer ez, gizabanakoaren definizio sozial moduko bat. Beti dokumentatu dut ekintza hala argazkietan nola bideoetan. Bestalde, ekintza egiten deneko premisa da izenburuan deskribatzen den bezalaxe egiten dela (lokalizazioa barne). Horrenbestez, ez dut uste haren interesa emaitza bisualean baino ez dagoenik, adierazpen desberdinen gurutzaketak eragiten dituen harremanetan baizik. Adibidez, *Peeing with my daughter on Pulaski Bridge* lanean enuntziatua eta ekintza elkarren osagarri dira. Ekintzaren beste alderdi garrantzitsu bat da zutik pixa egitea maskulinitatearen performance batekin lotzen dela. Orain arte, hainbat lokalizazio hautatu ditut hainbat interesi jarraituz, esanahien espektra zabaltzeko asmoz beti.”

Itziar Okariz

*Espazio publiko eta pribatuetan txiza egitea* ikusgai dago *68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018* erakusketan.

**Itziar Okariz** artista da.

**Chus Martínez** Basileako (Suitza) FHNW Academy of Arts and Design Arte Institutuaren zuzendaria da.

## Mallarmé revisé edo Malarmado errebisatuta

(Esther Ferrer, 1968)

Esther Ferrer eta Laurence Rassel

OBARRI BURUZ

“(...) aurretik markatutako galtzada-harri bat dado bat bezala kokatzea buruaren gainean. Agertoki batera irten (nahiz eta beste edozein lekutan ere egin daitekeen). Paseatu edo ez, baina edozein kasutan zoru gainean erortzen utzi (zenbat eta soinu handiagoa atera zoruak, hobea). Makurtu, jaso, ozenki esan zenbakia eta publikoari erakutsi (uler dezan ez dagoela tranparik). Operazioa nahi adina bider errepikatu. Agertokitik (edo dena delako lekutik) irten galtzada-harria buru gainean dela, baina oraingoan atzeraka ibiliz edo galtzada-harria agertokiaren (edo hautatutako lekuaren) erdian utzi, beste norbaitek esperientzia errepikatu nahiko balu ere”. *Mallarmé revisé edo Malarmado errebisatuta* egin nahi duenarentzako jarraibideak argiak eta laburrak dira. Agertoki bat izatea beharrezkoa da, baina ekintza beste edozein lekutan ere egin daiteke. Nahikoa da publikoa egotea, dadoa edukitzea eta lekuak zorua izatea. Soinua egiten duen zorua. Museo baten zorua, adibidez.

Ekintza Stéphane Mallarméren *Un coup de dés jamais n'abolira le hasard* (1897) obrari egindako omenaldi-aipua da. Esther Ferrerrek egiten duen berriakurketan, gauza batzuk aldatu egiten dira. Aldaketek ekintzako elementuen arteko harreman espazialei eragiten diete. Horrela, dadoen tiraldia ez da egiten, logikoa izango zen moduan, eskuarekin, buruarekin baizik. Dadoa ez da erortzen mahai baten gainean, zoruaren gainean baizik, zoru soinudun baten gainean. Hori, ondorioztatzen da, une hartan —Esther Ferrerrek ekintza estreinakoz egin zuen unean— Parisko kaleetan gertatzen ari zenari egindako erreferentzia bat da.

*Mallarmé revisé edo Malarmado errebisatuta* ikusgai dago *68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018* erakusketan.

Esther Ferrer artista da.

Laurence Rassel Bruselako École de recherche graphique ikastetxeo zuzendaria da.

## Risveglio (Esnatzea)

(Nemesio Mogrobejo, 1903)

### Mikel Eskauriaza eta Asier Mendizabal

#### OBARRI BURUZ

Nemesio Mogrobejok 1903an egin zuen *Risveglio*, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz Erroman egin zuen egonaldiko eskulturetako bat. Artista—hasieran Parisen ikasia, non Auguste Rodinen eragina jaso zuen eta korronte artistiko berrietara ohitu zen— gaixotu egin zen pixka bat geroago, eta 1910ean hil, 35 urte zituela. Lau urte geroago, 1914an, *Risveglio* Bilboko Arte Ederren Museo inauguratu berrian instalatu zen, Atxuriko Ospitale Zibil zaharraren eraikinean.

1930eko data duen zuri-beltzeko argazki batek museoan izan zuen lehen kokapenaren aretoa erakusten du. Atzealdean, uniformeaz eta plater-kapeluaz jantzitako zaindari bat janba batean bermatuta dago. Aretoaren erdian, paretak margolanek beteta daudela—batzuk besteen gainean eta paretan ia leku librerik utzi gabe—, *Risveglio* ikusten da, gizon gazte biluzi baten konkorriribileko eskultura, besoa altxatuta eta burua esku gainean bermatuta, ameskeria unea adierazten duen iminazio batean, edo, akaso, izenburuak dioen bezala, nagiak kentzen.

Museoaren zuri-beltzeko beste argazki bat. Oraingoan 1949koa da, eta gaur egun Doña Casilda Parkeko eraikinean duen guneko hall nagusia erakusten du. Paretako mihise triangeluarrean markoztatuta, eskailera ikaragarri baten azpian, hiru eskulturak osatutako multzoa. Erdian, Moisés de Huertaren *Una hetaira* (1911); albo batean, *Risveglio*; bestean, *Eva* (1904), Mogrobejok Italiako egonaldian egin zuen lanetako beste bat. Gaur egun, artistaren bi eskulturen kopia batzuk daude museoaren antzinako sarrera inguratzen duten horma-hobietan.

*Risveglio*-ren zuri-beltzeko beste argazki bat. Hau, 1990ekoa. Gazte biluzi esnatu berriak larru beltzeko jaka bat dauka sorbaldetatik zintzilik. Eranskin adeigabe eta espontaneoak eskultura moderno eta amesleria gazte *new romantic* bihurtzen du. Figuraren oinetan, marmolezko zoruaren gainean, hiru lo-zaku, liburuz, paperez eta irrati-kasete batez inguratutako lokartuekin.

**Mikel Eskauriaza** artista da.

**Asier Mendizabal** artista da.



## Bilbao Song

(Peter Friedl, 2010)

### Ismael Manterola eta Leire Vergara

#### OBARRI BURUZ

Sei minutuko *travelling* bat margolan multzo baten eszenaratzean zehar. Horietako batzuk XX. mendearen lehen hereneko euskal pinturaren eskolakoak dira: Juan de Echevarriaren *Paria gaztelaua* (1917), Gustavo de Maezturen *Ordena* (c. 1918-1919) —biak Bilboko Arte Ederren Museoaren bilduman— eta Aurelio Artetaren *Gerraren triptikoa* (1937). Gainerako margolanek bata bestetik desberdinak diren loturak dituzte euskaltasunaren gai komunarekin, gaiarengatik, hala nola Jean-Auguste-Dominiqueren *Enrike IV.a, Espainiako enbaxadoreari harrera egiten* (1817) obraren kasuan, edo, bestela, egilearengatik, *Soldadua eta emakume mulatoa* obraren kasuan adibidez, Victor Patricio Landaluze bilbotar margolari eta ilustratzailearena, 1850ean Kubara emigratutakoa. *Tableaux vivants*en artean, testuinguru lokaleko figura ezagun batzuek, Julen Madariagak eta Pirritx eta Porrotx pailazoez, beren buruaren rola jokatzeko dute. Atzealdean, akordeoi batek eta piano batek Kurt Weill-ek Bertolt Brechten *Happy End* komedia musikalerako (1929) sortu zuen kantua interpretatzeko dute.

Peter Friedl-en pelikulako ikusizko eta entzunezko erreferentziek erakusten dute, ezinbestean, museoa, espazio eta denbora desberdinen irudiak etenik gabeko batasun batean gainjarriz eta geldituz, kontakizun kanonikoa sortzen duen edukiontzia gisa. Hemen, ordea, eszenaratzea, muntaketa, *travelling*a eta gisako prozedurak erabiliz eraikitako kontakizun orok berekin nahitaez dituen etenak eta hausturak seinatu nahi dira. Horrela, Friedl-en lanaren helburua da proiektu modernoaren marko orokorraren barruan txertatutako kontakizun lokalen irakurketa berrituak sortzea, irudiek eguneratzeko duten potentzian oinarrituta —irudi oro da aldi berean anakronikoa eta garaikidea—. *Bilbao Song* 2010eko martxoaren eta ekainaren artean aurkeztu zen Bilboko Rekalde Aretoan, ETAk urte bereko irailean su-etena aldarrikatu baino pixka bat lehenago.

**Ismael Manterola** Artearen Historiako irakaslea da EHU/UPVko Arte Ederren Fakultatean.

**Leire Vergara** komisario independentea eta Bulegoa z/b-ko kidea da.

**110**  
URTE AÑOS

**BILBOKO ARTE  
EDERREN MUSEOA  
MUSEO DE BELLAS  
ARTES DE BILBAO**

Laguntzailea:

**Bule  
goa Z/B**